

## Datorren ikasturtea

**Mireia:** Zer, urduri datorren ikasturterako?

**Gorka:** Bai, tira, pixka bat. Oraintxe ari nintzen gauzak antolatzen. Ziur aski trenez joango naiz, hegazkina oso garestia da!

**Mireia:** Hori zortea! Nik hegazkinez joan behar dut, eta ziur nago gaizki pasatuko dudala, oso bidaia luzea da!

**Gorka:** Tira, neska, lo hartuko duzu, eta kito!

**Mireia:** Ikusiko dugu! Zer egingo duzu zuk, ikasle-pisu batean biziko zara?

**Gorka:** Ba, ez daukat garbi oraindik. Zuk?

**Mireia:** Nik garbi daukat argentinarrekin bizi nahi dudala, hango jendea ezagutu nahi dut, hango ohiturak...

**Gorka:** Bai, gainera, zuk ez duzu arazorik izango hizkuntzarekin. Nik, ordea, ez dakit nola moldatuko naizen. Agian, hasieran, akademia batean eman beharko dut izena.

**Mireia:** Bai, ondo etorriko zaizu konfiantza hartzeko. Niri agian hasieran kostako zait dena ulertzea, hitz batzuk oso desberdinak dira-eta, baina, tira, erraz moldatuko naiz.

**Gorka:** Zer ondo ibiliko garen, Mireia! Imajinatzen zaitut han, matea edan eta edan!

**Mireia:** Bai, oraindik ez dut probatu, baina seguru nago gustatuko zaidala! Zuk bizikleta erosiko duzu, ezta? Amsterdamen jende guztia ibiltzen da bizikletan.

**Gorka:** Bai, bai, zalantzarik gabe! Iristen naizenean egingo dudana lehenengo gauza horixe izango da, bizikleta erosiko dut!

**Mireia:** Eta ingurua ezagutzeko aprobeztatuko duzu?

**Gorka:** Ba, ziur aski ez, oso garestia da. Zuk?

**Mireia:** Nik garbi daukat ikastaroa bukatu eta gero herrialdea ezagutzera joango naizela; hango enpanadilla mota guztiak probatu nahi ditut.

**Gorka:** Beti janaria buruan, neska! Zer tripontzia zaren!